



**BIXENTE BARANDIARAN**

# ERRENTERI GOGOAN

1. Erreteritik eskutixo bat  
iritsi zait oraintxe  
ogei ta iruan apaldutzero  
joateko dio ementxe  
gauz kanpoan ezin det eta  
utzi ditut ainbat etxe  
orrera ere ezin naiz joan  
eskerrik asko Arretxe.

2. Borondate onez deitu nazula  
ori daukat ikusia  
Erreteriko lagunen berri  
ondo nago ikasia  
zuek merezi ainbat ezta  
nik daukaten grazia  
nere aldetik saiatuko naiz  
egiten aldan guzia

3. Gustora asko egongo nitzan  
Amulletan zuen ondoan  
baldin egon izan banintza  
orrutz joateko moduan  
orra urteak pasatutzeak  
emen zer ekartzen duan  
zartuagatik orko lagunak  
beti zaituztet gogoan

4. Zuen gogoan aldan guztia  
nik ere nai det jaso  
saiatuarren gauza gutxi  
izan liteke akaso  
bainan zuek dezuten lanai  
egin nai diot kaso  
urtetik urtera indartu dedin  
gogozko dezuten Oarso

5. Erreteriak beti izan du  
bertsolari onaren pama  
oraindik ere ainbeste dago  
jendek aitatzen duana  
zer kontatua guri utzita  
beste mundura joana  
erri guziak goratu zuten  
ondo merezi zuana.

6. Berrero ere asi zerate  
lantegi ori prestatzen  
gogo aundiz asitzen dana  
ez da erreza nekatzen  
egun batzuek bearko dira  
pentsatutakoa bukatzen  
suerte on bat izan zazute  
besterik ez det eskatzen

7. Gustora nago nere gisaka  
lantegi oni ekinda  
nere barrenen daukaten poza  
ixilik gorde exin da  
lagunak nun nai edukitzea  
neretzako atsegin da  
zer alaitazun zuen atea  
zabalik dala jakin da

8. Gaur il onek ogei ta bat ditu  
etzi ogei ta irua  
gogoratuko naiz egun orretan  
Amuletako giroa  
pena artzen det ez/in joana  
nire zuen ingurua  
neroni etxean gelditu arren  
zuekin pentsatzen burua

9. Asko poztu naiz beti bezela  
nere lagunak deitzea  
apirilaren ogei ta iruan  
juateko apaltzea  
nola etzaidan orain komeni  
gauaz kanpon ibiltzea  
pentsatu nuan obe nuela  
nere etxean gelditzea

10. Oso gustora ekiten diot  
nere gogoko lanari  
aldan guzian lagundutzea  
beti gustatu zait neri  
besarkada bat biotz biotzez  
eman nairik danari  
alkartutzeko etxoingo diot  
gure ama Madalenari